

Amona Lobaina (narrazioa)



Amona Lobainari gustatu egiten zaio nik lagunak etxera ekartzea. Batez ere neskak direnean, eta hori gutxitan gertatzen da.

Gaur, Paola etorri da etxera. Niagarako ur jauziei buruzko pelikula bat ikusi dugu elkarrekin, neska ilehori bat agertzen zena. Oso film txorua zen, baina Paolari asko gustatu zaio, musu ematen ziotelako aktoreek elkarri. Nik ere musu ematea nahi zuen Paolak. Bai zera! Horixe bakarrik behar genuen!

Eskerrak amona etorri den afariarekin

Paolak eta bio den-dena jan dugu. Arkumea. Hezurak zuri-zuri eginda utzi arte zurrupatu ditugu.

Paola etxera joan da musurik gabe. Izorrai.

Amona pozik geratu da:

“Gehiagotan gonbidatu beharko zenuke neska hori etxera! Gustua eman du hezurak ze ondo aprobetxatu dituen ikusteak!”.

Harkaitz Cano
Lesterren logika
Elkar (egokitua)

1. Irakurri ondoren, erantzun galdera hauei:

- Zer du gogoko amona Lobainak?
- Gustatu al zaie afaria? Zergatik uste duzu hori?
- Zer iruditu zaio Paolari pelikula? Zergatik?
- Zure ustez, pozik joan al da Paola etxera? Zer uste duzu? Azaldu.

2. “Bai zera!” eta “Horixe bakarrik behar genuen!” esapideak ageri dira irakurgaian. Zertarako erabili ditu protagonistak? Aukeratu erantzuna.

Ados dagoela adierazteko.

Ziur dagoela adierazteko.

Ados ez dagoela adierazteko.

3. Lotu sinonimoak edo esanahi bereko hitzak.

gutxitan	bildotsa
arkumea	noizbehinka
aprobetxatu	eroa
txorua	baliatu